



BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

2026KO AURREKONTUAREN MEMORIA

1. KOKAPENA. 2025. URTEAREN LABURPEN BAT.

Globalizazioak, digitalizazioak eta abiadurak ezaugarritutako garaiotan, Badalab hizkuntza berrikuntzako laborategiak nahi du izan ez-ohiko ekosistema baten katalizatzaile, hark elika dezan 2073 urtean euskaratik, eta euskaraz ere, bizitzeko hautua egingo duen hiztun komunitatea. Horretarako, bere laborategi izaeratik egingo du ekarpena, galderak eginez, ez-ohiko lankidetzak probokatuz, eta hauen zerbitzura jarritz espazioak, tresnak eta esperientziak.

2025 urteko lana gidatu eta inspiratu du "Transmisioa, transizioa, transgresioa. Irtenbidea kolektiboa da" lema. Norabide honetan gauzatutako ekintzek nagusiki bilatu dute, batetik, hizkuntza ezagutzen, erabileran eta ideologian eragitea eta, bestetik, aldaketarako eta komunitatea indartzeko trantsizioak laguntzeko tresnak, espazioak eta baldintzak sortzea.

Egitasmo nagusiak izan dira:

- Erretereria Laborategia. Euskara eta aniztasuna ardatzean dituen komunitatea garatzeko eta elikatze tresnak eta espazioak ahalbidetzea. Horretarako, Aldahitz metodologiak eskaintzen dituen tresnak baliatu dira, baita ludikotasuna eta Atlantikaldian kokatu den ikuskizunaren prestaketa ere.
- Kutzaz Kanpo. Ludikotasunak komunitatearen garapenean, harremanetan, hizkuntza ohituren aldaketan... eragiteko duen potentziala esploratu nahi izan da.
- Digitalitate kritikoa. Konpetentzia digital kritikoak lantzeak euskararen biziberritzeari egin diezaiokeen ekarpena esploratu nahi da. UEUK eskainitako Euskara eta Digitalitatea graduondokoan parte-hartzea, Erronka Digitalen bideo sortaren bigarren denboraldia, hezkuntza formalean erabili ahal izateko sortu diren ikasgoerak eta

BADALAB CONSORCIO DE INNOVACIÓN LINGÜÍSTICA

MEMORIA PRESUPUESTO 2026

1. CONTEXTO. RESUMEN AÑO 2025.

En épocas caracterizadas por la globalización, la digitalización y la velocidad, el laboratorio de innovación lingüística Badalab quiere ser el catalizador de un ecosistema atípico que le alimenta de la comunidad de hablantes que en 2073 va a elegir vivir desde el euskera y desde el euskera. Para ello, contribuirá desde su condición de laboratorio, formulando preguntas, provocando colaboraciones extraordinarias y poniendo al servicio de las mismas espacios, herramientas y experiencias.

Ha guiado e inspirado el trabajo del año 2025 el eslogan "Transmisión, transición, transgresión. La solución es colectiva". Las acciones llevadas a cabo en esta dirección han buscado principalmente incidir en el conocimiento, uso e ideología del idioma y generar herramientas, espacios y condiciones para favorecer las transiciones hacia el cambio y el fortalecimiento comunitario.

Los principales proyectos han sido:

- Erretereria Laborategia. Posibilitar herramientas y espacios para el desarrollo y la alimentación de una comunidad con el euskera y la diversidad como ejes. Para ello, se han utilizado las herramientas que ofrece la metodología Aldahitz, la ludicidad y la preparación del espectáculo que se ha situado en Atlantikaldia.
- Kutzaz Kanpo. Se ha querido explorar el potencial de la ludicidad para influir en el desarrollo de la comunidad, en las relaciones, en la adopción de nuevos hábitos lingüísticos.
- Digitalización crítica. Se pretende explorar la contribución que el desarrollo de competencias digitales críticas puede aportar a la revitalización del euskera. Las herramientas utilizadas han sido la participación en el postgrado de Euskera y Digitalización ofrecido por Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), la segunda temporada de la serie de vídeos *Erronka Digitalak*, los aprendizajes creados

Badalabaren beraren komunikazio estrategia izan dira erabilitako tresnak.

- Zer nolako herrigintza, aktibismo edo militantzia behar du hizkuntza gutxitu batek egungo testuinguruan aurrera egiteko? Galderan sakontzen jarraitu da, Marina Garcesen bi libururen euskararako itzulpenaren bidez, bere Euskal Herrirako bisitaren bidez eta Euskal Herri osoko gazte militanteekin abiatutako hausnarketa eta saretze lanketen bidez.
- Etorkisuneku 01. Egitasmo honen helburua izan da hizkuntzari eta komunitetari lotutako kontakizunak, sinismenak, diskurtsoak... berritzeko ekarpena egitea.
- Beka deialdiak. Laborategiaren lema-irudiaren ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa aberastuko duten 3 beka banatu dira.
- Udako Euskal Unibertsitateari dirulaguntza, diziplinari-erako ikerketa proiektu deialdia abian jartzeak eta garatzeak dakartzan jarduerak finantzatzeko.
- Inbertsioen alorrean badalab.eus webgunearen arkitekturaren berritzea kokatzen da.

2. 2026KO AURREKONTUAK OSATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE NAGUSIAK:

2026. urteko aurrekontua osatzeko garaian abiapuntu dira 2025. urte amaieran martxan diren ekimenak eta egituraketa. Proposamen berriak aurreikus daitezkeen arren, jarraikortasuna izango da ezaugarri nagusia.

2026ko aurrekontua kapitulu xehetuta:

I. KAPITULUA:

2025. urtetik aldaketarik ez da atal honi dagokionean. Badalabaren lantaldeak 3 pertsonen osaturik jarraitzen du, zuzendaria eta bi berrikuntza eragile, hain zuzen ere. Kapitulu honen aurrekontua finkatzeko iazko zenbatekoari % 2,5 igoera aplikatu zaio.

para su uso en la educación formal y la estrategia de comunicación propia de Badalab.

- ¿Qué tipo de construcción popular, activismo o militancia necesita una lengua minoritaria para avanzar en el contexto actual? Se ha seguido profundizando en la pregunta a través de la traducción al euskera de dos libros de Marina Garces, su visita al País Vasco y los trabajos de reflexión y entronque con jóvenes militantes de todo Euskal Herria.
- Etorkisuneku 01. El objetivo de este proyecto ha sido contribuir a la innovación de relatos, creencias, discursos... relacionados con la lengua y la comunidad.
- Convocatorias de becas. Se han distribuido 3 becas que contribuirán al lema del laboratorio y enriquecerán su programa público.
- Ayuda económica otorgada a UEU, para financiar las actividades derivadas de la puesta en marcha y desarrollo de la convocatoria del proyecto de investigación interdisciplinar.
- En el área de inversiones se enmarca la renovación de la arquitectura de la web "badalab.eus".

2. CRITERIOS GENERALES PARA LA ELABORACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS 2026:

A la hora de elaborar el presupuesto del año 2026, se parte de las iniciativas y estructuración que están en marcha a finales de 2025. Aunque se pueden prever nuevas propuestas, la principal característica será la continuidad.

Presupuesto 2026 desglosado por capítulos:

CAPÍTULO I:

Desde 2025 no ha habido cambios en este apartado. El grupo de trabajo de Badalab sigue compuesto por 3 personas, la directora y dos agentes de innovación. Este capítulo se ha presupuestado con un incremento del 2,5 % sobre la cuantía del año anterior.

II. KAPITULUA:

Gastu arruntak honako bloke nagusietan bereizi daitezke:

- Egoitza eta funtzionamendu gastuak. Errenteriako Madalen kaleko 27an kokatzen den egoitza fisikoaren alokairua eta Badalab funtzionamenduan mantentzeko beharrezko gastuei dagokie (hornidurak, aseguruak,...).
- Elkarrekin pentsatzera bideratutako jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzea bideratutakoa. Ez – ohiko ikuspegiak landu eta ez – ohiko harremanak sustatu nahi badira, elkarrekin aritzeko espazioak eta baldintzak sortu behar direlako, baita ez – ohiko inspirazioak ekarri.
- Metodologia berriak probatzeko eta sortzeko, ezagutza kualifikatua eskuratzeko eta pilotuak gauzatu ahal izateko baliabideei dagokie.

IV. KAPITULUA:

2025. urtean abiatutako biderei emango zaio jarraipena, Badalaben lehen ekarpena egingo dioten eta programa publikoa aberastuko duen beka deialdi berri baten bidez. Aurten ere 3 izango dira banatuko diren bekak.

Bestalde, UEUK garatzen duen Ikergazte diziplinarteko ikerketa proiektuari ere lagundu egingo zaio.

3. BESTELAKO FINANTZIAZIOA

GFAk Badalaben egingo duen ekarpenari gehitu behar zaio Errenteriako Udalak egingo duena.

Esploratuko dira bestelako finantzazio bideak.

CAPÍTULO II:

Los gastos corrientes se pueden dividir en los siguientes bloques principales:

- Gastos en la sede y para el funcionamiento. Corresponde al alquiler de la sede física sita en la calle Magdalena número 27 de Errenteria y a los gastos necesarios para el funcionamiento de Badalab (suministros, seguros...).
- Gastos destinados a la organización de jornadas y conferencias orientadas al co-pensamiento, para trabajar enfoques no habituales y fomentar relaciones inusuales, porque es necesario crear espacios y condiciones para interactuar, así como para aportar inspiraciones no habituales.
- Se refiere a recursos para probar y crear nuevas metodologías, adquirir conocimiento cualificado y poder llevar a cabo pilotos.

CAPÍTULO IV.

Se dará continuidad al camino iniciado en el año 2025 a través de una nueva convocatoria de becas que contribuirán al lema de Badalab y enriquecerán el programa público. Este año también serán 3 las becas que se repartirán.

Por otra parte, se apoyará el proyecto de investigación interdisciplinar Ikergazte que desarrolla UEU.

3. OTRA FINANCIACIÓN

A la aportación que realizará la DFG a Badalab hay que añadir la del Ayuntamiento de Errenteria.

Se explorarán otras vías de financiación.

BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA
2026KO ADMINISTRAZIO AURREKONTUA / PRESUPUESTO ADMINISTRATIVO 2026

Gastuak/Gastos	Zenbatekoa Importe	Sarrerak/Ingresos	Zenbatekoa Importe
1.- Langileria gastuak / Gastos de personal	214.445,00	1.- Zuzeneko zergak / Impuestos directos	536.300,00
2.- Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak / Gastos corrientes en bienes y servicios	282.855,00	2.- Zeharkako zergak / Impuestos indirectos	
3.- Gastos financieros / Finantza gastuak	39.000,00	3.- Tasak eta bestelako dirusarrerak / Tasas y otros ingresos	
4.- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes		4.- Transferentziak arruntak / Transferencias corrientes	
5.- Kontingentzietarako eta beste ezusteko batzuetarako funtsa/ Fondo de contingencia y otros imprevistos.		5.- Ondare sarrerak / Ingresos patrimoniales	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes.	536.300,00	Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes.	536.300,00
6.- Inbertsio errealak / Inversiones reales		6.- Inbertsio errealak besterentzea / Enajenación de inversiones reales	
7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital		7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital	
Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital		Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital	
8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros		8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros	
9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros		9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros	
Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras		Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras	
Guztira/Total	536.300,00	Guztira/Total	536.300,00